

BILBOKO TRANBIAREN ZERBITZU BEREZIAK ETA MOZKETA PARTZIALA 15:50ETIK 16:10ERA, ATHLETIC CLUB ETA RAYO VALLECANO PARTIDUA DELA ETA

Igandean, apirilaren 14an, Euskotrenek zerbitzu bereziak eskainiko ditu eta Bilboko tranbian mozketa partziala burutuko du Athletic Club – Rayo Vallecano partidua dela eta. Mozketa partziala, 15:50etik 16:10era burutuko da. Mozketa hori Bilboko Udalak koordinatutako udal Emergentzia Planaren barruan dago, Liga Santanderreko partidura joan nahi duen jendearen irteera modu egokian bermatzeko

Atxuritik La Casillarako 15 minutuko zirkulazioez gain, Atxuritik Ospitalera 13:21ean eta Pio Barojatik Ospitalera irtengo diren zenbait zerbitzu berezi ere eskainiko ditu ondorengo orduetan: 12:59an, 13:14an eta 13:44an.

Partiduaren irteera modu egokian egiteko, 15:50etik 16:10era bitartean, gutxi gorabehera, zerbitzuaren mozketa partziala burutuko da La Casilla eta Euskalduna artean. Behin mozketa bukatuta Atxurirako eta La Casillarako tranbiaren zirkulazio bereziak martxan jarriko dira.

Partiduaren ondoren San Mamesetik hurbil dauden geralekuetan pilaketak ekiditeko, Euskotrenek Euskaldunako geralekura joatea aholkatzen du. Geraleku horretatik tranbiaren zerbitzu bereziak irteten dira. Bilboko tranbiarako sarrera errazagoa eta azkarragoa izan dadin, Euskotrenek ordaintzerakoan Barik erabiltzailea gomendatzen du.

Informazio gehiago lortzeko asmoz, erabiltzaileek 944 333 333 telefono zenbakira dei dezakete, tranbiaren www.euskotren.eus web gunea kontsulta dezakete, edota twitterreko [@euskotrenEJGV](https://twitter.com/euskotrenEJGV) gunean eta Euskotrenen APP ofizialean

Igorpen data: 2019ko apirilaren 11n